

Begoñako Andra Mari Irakasleen Unibertsitate Eskolako Gradu Bukaerako Lanaren Araudi Orokorra ezartzeko akordioa.

Araudi honen bidez, "Begoñako Andra Mari" Irakasleen Unibertsitate Eskolako (aurrerantzean BAM) Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako graduetakoko Gradu Bukaerako Lana zelan egin, zelan kudeatu eta zelan ebaluatu arautzen da.

Zioen Azalpena

Urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuak (unibertsitateko ikasketa ofizialen antolaketa ezartzen duenak) 12. artikuluan arautzen duenez, graduko ikasketen amaieran Gradu Bukaerako Lana egin beharko da. Lan hori ikasketa planen azken aldiari egingo da eta haren bidez tituluaren gaitasun orokorrak ebaluatuko dira. Arautegi horretan ez da ezartzen beste xedapen berezirik lana egin eta ebaluatzeko.

Era berean, Unibertsitateko Ikaslearen Estatutua onartzen duen abenduaren 30eko 1791/2010 Errege Dekretuaren 27.3 artikulua ezartzen duenez, Unibertsitateko arautegi bereziak arautuko ditu Gradu Bukaerako Lanak. Arautegi horretan ezartzen denaren arabera, ikasleek eskubidea izango dute tutoretza eraginkorra, akademikoa eta profesionala izateko Gradu Bukaerako Lanean.

Beraz, Batzorde Akademikoaren ekainaren 24ko 3/2010 Erabakiaren bidez (urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuaren bidez araututako graduko titulazioetarako Araudi Akademiko Orokorra aldatzen duena, Errektorearen ekainaren 25eko 11/2010 Agindu bidez promulgatua), esparru orokor bat ezartzen da, zentro guztietako instantzia akademiko guztiei jarduera hau kudeatzeko baliabide berberak eskaintzeko.

1. artikulua. Xedea eta aplikazio eremua

1. Arautegi honetan BAMEko Gradu Bukaerako Lanak zehazteko, haien tutoretza egiteko, esleitzeko, aurkezteko, ebaluatzeko, kalifikatzeko eta tramitatzekeo jarraibideak jasotzen dira.
2. Arautegi honen osagarri gisa, BAMEko gainontzeko arautegia eta tartean diren gainontzeko alderdiei dagokien indarreko legeria daukagu, esate baterako, besteak beste, matrikulari buruzko legeria, deialdiei buruzkoa, ebaluazio sistemari buruzkoa eta kredituen transferentzia eta onespeneri buruzkoa.
3. Gradu Bukaerako Lana urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuak arautuko du (dagokion tituluari dagokiona; hilaren 30eko BOE), haren ordean, arautegi honen aplikazioa eragotzi gabe.

2. artikulua. Definizioa

1. Gradu Bukaerako Lanetan ikasleak egindako proiektu edo azterketa originala jasoko duen memoria aurkeztu beharko da. Aipatutako proiektu edo azterketa modu indibidualean egin beharko da, ikasgaiko gidan ezarritako irizpideei jarraituz. Lanaren jarraipena tutoreak egingo du eta hura, besteak beste, orientatzailea eta laguntzailea izango da ikasketa prozesuan.
2. Tituluari lotutako gaitasun orokor eta espezifikoak integratu eta aplikatzera bideratuta egongo da Gradu Bukaerako Lana, eta, betiere, egiaztapen-memorian zehaztutako gaitasunak jaso beharko ditu.
3. Gradu Bukaerako Lana Jabetza Intelektualari buruzko Legeak babestutako lana da. Ondorioz, jabetza intelektualeko eskubideen titularra lana egin duen ikaslea izango da, Gradu Bukaerako Lana esleitzeko dokumentuan bestelakorik zehaztu ez bada, ikaslearen beraren onarpenarekin eta indarreko legerian xedatutako baldintzen arabera.
4. Gradu Bukaerako Lanak bat etorri behar du eskakizun-mailarekin, lantzen den gaiaren sakontasunari, hedadurari eta berritasunari dagokienez. Haren edukiak eta hedadurak bat etorri behar dute esleitutako kredituekin, eta, beraz, ikaslearen lanorduen kopurua kreditu horietara egokituko da.
5. Gradu Bukaerako Lana titulazioan jasotako prestakuntzarekin bat datozen ezagutza, trebetasun eta jarrerei lotutako gai batean sakontzeko orientatu beharko da, dela oinarritzko prestakuntzaren esparruan, dela didaktika-diziplinaritatean, dela egindako aipamenarekin bat etorritz. Horretarako, halaber, tituluaren ezarritako eta irakasgaiaren gidan jasotako gaitasunak hartuko dira erreferentziatzat.

3. artikulua. Gradu Bukaerako Lanaren tutorea

1. Haur Hezkuntzako Graduak titulazioan edo Lehen Hezkuntzako Graduak titulazioan dedikazio osoz irakaslanean diharduten irakasle guztiek prest egon behar dute Gradu Bukaerako Lanaren tutore izateko. Klaustroak dituen beharrezko kontuan izanda, dedikazio murriztua duten irakasleei tutoretzalanak eman ahal izango zaizkie.
2. Tutorearen eginkizunekin lotutako jarduerak, irakaskuntza-jarduerak zein koordinazio eta kudeaketa jarduerak, BAMEk Irakaslearen Plan Akademikoan (IPA) ezarritakoaren arabera kuantifikatu eta aitortuko dira.

4. artikulua. Gradu-amaierako lanaren hizkuntza

1. Ikasturtearen hasieran egiten den eskaintzan, GBLko gai bakoitza zein hizkuntzatan egin ahal izango den ezarriko da, eta lana graduan zehar erabiltzen diren hiru hizkuntzetako edozeinetan (euskara, gaztelania edo ingelesa) egin, aurkeztu eta defendatu ahal izango dela bermatuko da. Edozein kasutan, ikasleak Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparruko C1 mailari dagokion maila erakutsi beharko du, ahoz zein idatziz, irakasgaiari esleitutako gaitasunetan jasotzen den bezala. Ahozko eta idatzizko gaitasun nahikoa ez frogatzeak Gradu Bukaerako Lana etetea ekar dezake.
2. Lana hizkuntza berean egin, aurkeztu eta defendatu beharko da.
3. Ikasketa-espeditentean Gradu Bukaerako Lana zein hizkuntzatan egin den jasoko da.

5. artikulua. Gradu Bukaerako Lanaren tutorearen eginkizunak

1. Gradu-amaierako lana araudi honetako 3.1 artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituen BAMEko irakasle batek zuzenduko du. GBLren jarraipena eta tutoretza irakasgaiko gidan jasotako tutoretza-planean ezarritako talde-bileren eta banakako bileren bidez egingo da.
2. Tutorearen eginkizunak hauek dira:
 - a. Ikaslea egiten ari den graduko ikasketak sakondu eta osatzeko gai edo aztergai egokia proposatzea.
 - b. Ikasleak ikasketa prozesuan lagundu eta gidatzea eta ikaslearen autonomia sustatzea lana egitean.
 - c. Taldeko edo banakako tutoretza-bilerak planifikatzea eta ikaslearekin lan-plana adostea.
 - d. Lanaren zirriborroaren feedbacka berrikustea eta egitea tutorearekin adostutako epeetan, behin betiko entregatu aurretik.
 - e. GBLa ebaluatzea, ikasgaiko gidan ezarritako ebaluazio-irizpideak eta prozedurak kontuan hartuta.
 - f. Lanaren jarraipena egitea eta horretarako diseinatutako dokumentuetan erregistratzea. Dokumentu horiek irakasgaiko gidan jasoko dira.

6. artikulua. Praktiken eta Gradu Bukaerako Lanaren arduraduna

1. BAMEko zuzendariak Praktiken eta Gradu Bukaerako Lanaren arduradun bat izendatuko du.

2. Praktiken eta Gradu Bukaerako Lanaren arduradunak Gradu Bukaerako Lanaren ikasketa-programa eta -gida prestatuko ditu urtero.
3. Praktiken eta Gradu Bukaerako Lanaren arduradunak tutorea esleitzeko eta Gradu Bukaerako Lanerako gaiak aukeratzeko prozeduraren berri emango die ikasleei eta prozedura honetan tartean diren unibertsitate-atalei.

7. artikulua. GBLko matrikula

1. Gradu Bukaerako Lanaren matrikula egiteko, dagokion gradua egiaztatzeko memorian ezarritako baldintzak bete beharko dira.
2. Deustuko Unibertsitateko Lehenengo eta bigarren zikloko ikasketetan aurrera egiteko eta jarraitzeko araudiari (2018ko otsailaren 27) jarraituz, Gradu Bukaerako Lanaren matrikula egiteko, ezinbestekoa da bere ikasketa ikasketa-planeko ikasgai guztiak gaindituta izatea edo haietan matrikulatzea aldi berean.
3. Aurreko puntuan aipatu den araudiari jarraituz, matrikulak deialdi bitarako aukera emango du. Ezarritako deialdietan lanak aurkeztu ez dituzten edo defendatu ez dituzten ikasleak, berriro matrikulatu beharko dira hurrengo ikasturtean.
4. Bi deialdiotan ikasleak uko egin ahal izango dio ebaluazio-eskubideari, urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuaren bidez araututako Gradu titulazioetarako Araudi Akademiko Orokorraren 11. artikuluan jasotako baldintzak betez. (70 zk.dun BOUDko eranskina, Kontseilu Akademikoaren abenduaren 13ko 2/2016 Erabakiaren, Deustuko Unibertsitatean ematen diren lehenengo eta bigarren zikloko ikasketetan aurrera egiteko eta jarraitzeko arauak onartzen zituenaren hutsak zuzendu osteko testu bategina).

8. artikulua. GBLko gaia eta tutorea esleitzeko prozedura

1. Praktiken eta Gradu Bukaerako Lanaren arduradunaren zeregina izango da ikasturte bakoitzaren hasieran koordinatzea zein gai eta zein hizkuntzatan jorratu ahal izango den, eta gai horien esleipena kudeatzea.
2. Praktiken eta Gradu Bukaerako Lanaren arduradunak zerrenda bat argitaratuko du ikasturte-hasieran, GBLrako gaiekin.
3. Ikasleek haien espediente akademikoan ageri den batez besteko kalifikazioaren arabera aukeratu dute Gradu Bukaerako Lanerako gaia, lehentasuna emanaz, horrela, batez besteko kalifikazio altuagoa duten ikasleei.

4. Praktiken eta Gradu Bukaerako Lanaren Batzordeak ikasle bakoitzari esleitutako tutorearen eta gaien behin betiko zerrenda argitaratuko du.
5. Gaiaren eta tutorearen esleipena ikasturte baterako izango da.

9. artikulua. Gradu Bukaerako Lanaren aurkezpena eta defentsa

1. Memoria aurkezteko epeak, ohiko deialdian zein ezohikoan, Idazkaritza Akademikoak ezarri eta argitaratuko ditu ikasturte hasieran.
2. Lanaren tutoreari koadernatutako bi kopia emango zaizkio ezarritako egunean, eta beste bat euskarri digitalean. Gero, tutoreak epaimahaiko kideei dagozkien kopiak emango dizkie, ikasgaiko gidan jasotzen den tutorearen txostenarekin batera.
3. Aurkezten den memoriaren egiturak eta aurkezpenak ikasketa-gidan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.
4. Lanaren ahozko defentsak bi zati izango ditu: lehengo zatian, ikasleak ahozko azalpen bat emango du lanaren alderdirik eta ondoriorik garrantzitsuenei buruz; bigarreanean, ebaluazio-batzordeak galderak egiteko aukera izango du.

10. artikulua. Ebaluazio epaimahaia

1. Idazkaritza Akademikoak ikasturte-hasieran zehaztuko ditu Gradu Bukaerako Lanak ebaluatuko dituzten epaimahaiak.
2. Epaimahaiak BAMEko irakasleek osatuko dituzte.
3. GBLaren tutorea izango da epaimahaiko presidentea.

11. artikulua. Ebaluazioa eta kalifikazioa

1. GBLa ebaluatzeko, aintzat hartuko da ikasleak aurkeztutako idatzizko memoria, hura idazteko prozesua proiektuaren ahozko defentsa, ikasketa-gidan jasotako ebaluazio-irizpideak jarraituz.
2. Ikasleen aurkezpena amaitu ondoren, eta tutoreak egindako txostena ikusita, epaimahaiak kalifikazioa adostuko du, ikasgaiko gidan ezarritako ebaluazio irizpideak kontuan izanik.
3. Gradu Bukaerako Lanaren ebaluazio-epaimahaietako epaimahaiburuek sinatuta emango dizkiote ebaluazio txostenak Idazkari Akademikoari.
4. Azken emaitza gutxiegi balitz, tutoreak txosten arrazoitua egingo du, eta

ikasleari helaraziko dio, gutxiegitzat jotako alderdiak zuzendu ahal izateko.

5. Bikain (9 edo gehiago) lortzen duten ikasleen kasuan, epaimahaiak ohorezko matrikula jartzea proposatu ahal izango du, horretarako arrazoiak emanda. Ohorezko matrikula emateko araudian ezarritako portzentajeak hartuko dira aintzat, eta gehienezko kopurua gaindituz gero, tartean diren epaimahaiekin hitz egingo da.
6. Gradu Bukaerako Lanen azken emaitzen erreklamazioak Ikaslearen Araudiaren 9. artikuluan ezarritakoaren arabera egingo dira. Ebaluazioa epaimahai batek egin duenez, erreklamazioa ere epaimahai berak aztertuko du. Ebazpenarekiko desadostasuna egonez gero, BAMEko idazkari akademikoari helaraz dakioke haren aurkako helegitea.

12. artikulua. Memoriekin zer egingo den

1. Gradu Bukaerako Lanak urtebetez gordeko ditu praktiketako eta GBLko arduradunak.

Azken xedapena. Indarrean sartzea

Araudi hau 2021-2022 ikasturtean sartuko da indarrean eta une horretatik aurrera aplikatuko da, aurretiko beste edozein araudi baliogabetuz.